

B

BARREN

TOKIKOM

Familia baten beroa



**Etxean, sailkatu
zaborra gaika**

Eman izena edukiontzi
marroia erabiltzeko:
943 741 050 edo arreta@elgoibar.net



garraio publikoa
Gipuzkoa



Pertsona guztien mesederako tarifa bateratuak.



Garraio-aldaketak baldintza onetan.



Erabileraren araberako deskontuak.



Talde berezietarako zuzendutako hobariak.

Mugirekin, zu irabazle

Gipuzkoako garraio publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.



943 000 117
www.mugipuzkoa.com



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

Eibar

Ate irekien eguna

Apirilak 17

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA

A eta D ereduetan

Elkartrukeak

Portaleako Erakusketa

Apirilak 12-28





Maitane Mendikute

Jani! Hamaika toki, abentura, juerga, barre-algara, eta haserraldi elkarrekin, baina lehen aldiz BARRENEN txorrotxioka! Ea ba itxuran ematen diogun gure tartetxo honi hasiera, aurrerantzean norbait entretenitzeko moduko zerbait idazteko! Guri ere ondo etorriko zaigu buruari zertxobait eragin eta idazteko trebezia pixka bat hartzeko.



Janire Elordi

Apa, Maita! Nik ere ilusioz eta pozez heltzen diot ba BARREN aldizkarian kolaboratzeko aukera berri honi, dardara pixka bat sentitu dudaren atzamarretan ordenagailu aurrean idazten jarri naizenean. Baina tira, azkeneko aste hauetan atal honetan agurra idatzi dutenen testuak irakurtzeak emandako hitza betetzeko ordua iritsi dela sinestarazi dit.

Gustatu zait egin duzun aukera, eta hasteko aitortuko dizut umetan ez nuela oso ondo ulertzen zergatik zeuden mila lekutan *Guernica* koadroaren erreplikak. Halako beldur eta kaos sentsazioak transmititzen zizkidan, eta zentzugabea iruditzen zitzaidan irudiak hain era desordenatuan margotu izana. Baina seguruenik, hain ospetsu egin izanaren arrazoietakoa bat horixe izango da, hitzik gabe, egun hartako eraso krudel eta gupidagabea transmititzeko gai baita margo hau.

“Gernikan egon beharko luke ‘Guernica’ obrak, tragedia hartan hildakoen omenez”

Gure lehen elkarrizketarako, krisia, korrupzioa, politika, genero indarkeria eta beste eguneroko gai ugari datozkit burura. Hala ere, beste ekimen batek sortu dit gaurko elkarrizketa idazteko arreta.

Beti izan ohi dut gustuko Picasso-ren *Guernica* koadroa, Jani. Eta hain zuzen ere, entzun dut orain gutxi Gernikako Udala sinadurak biltzen hasi dela artelana herrira ekartzeko. 50.000 firma biltzea dute helburu eta sare sozialen bitartez kanpaina gogorra egiten ari dira ekimenak ahalik eta atxikimendu handiena izan dezan. Badirudi, momentuz 15.000 inguru lortu dituztela.

30 urte baino gehiago omen dira artelana Madrilgo Reina Sofiara eramane zutenetik, aurretik mundu guztian zehar ibili ondoren. Orduz geroztik han jarraitzen du artelanak, Madril, Gernikatik urrun. Baina Madril eta Madrildarrak ez ziren bonbardaketaren lekuko izan merkatu eguna zen astelehen hartan. Ez zituzten bonba hotsak entzun, beraien etxeak nola erortzen ziren ikusi, ezta euren senitartekorik galdu ere.

Koadroak Gernikan egon beharko luke, bidegabeko tragedia hartan hildako herritar denen omenez, ondorengo belaunaldiak herriaren historia gertu eago ezagutu dezaten, eta baita bisitariak artelana bere testuinguruan ikusi dezaten ere. Lortuko al da artelana Gernikara ekartzea? Firma bilketa masiboak balioko al du zerbaiterako? *Guernica* Gernikara!

“Hitzik gabe, egun hartako eraso krudel eta gupidagabea transmititzeko gai da”

Aitxitzak makina bat aldiz kontatu digunez, 37ko apirilaren 26 hartan, hegazkinak abiadura bizian pasatu zitzaizkion buru gainetik hots beldurgarria eginez, bera Mutrikuko Olatz auzoan zehar etxera bidean zihoala. 11 urteko mutikoa zen orduan, baina ez omen zaio sekula ahaztuko zarata hura.

Eta bonbardaketa haren ondorengo hilabeteetan margotu zuen Picassok koadro hau, aurrez Errepublikari espainiarraren gobernuko Arte Ederretako zuzendariak Parisen urte horretan egingo zen nazioarteko erakusketarako egin zion eskaria betez.

Margolariak berak honakoa zioen artelanari buruz: “Ez, pintura ez dago gelak apaintzeko eginda. Babeserako gerra-tresna iraingarria da etsaiaren kontra”.

Agian, 76 urteren ostean, Espainiako Gobernuak oraindik ere bere agintepean izan nahiko du gerra-tresna hori, badaezpada.



I. URTEURRENA JOSE MARI LARRAÑAGA ORBEGOZO

2012ko apirilak 10ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilak 14, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodríguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Euskal Herriko Itzulia antolatzeko boluntarioak eskatu genituen, eta orain, eskerrak ematea tokatzen zaigu. 140 pertsona inguru izan ditugu lasterketa honen antolakuntzako zereginetan, eta Elgoibarko Lagun taldeak eta Gure Bide elkarteak eskerrak eman nahi dizkie horiei guztiei.

Mila esker guztioi.

Lagun Taldea eta Gure Bide ☺

Ondo ari gara!

Martxoan Gipuzkoako Diputazioko ordezkari bat Europako Parlamentuan izan zen, Bruselan, hondakinak kudeatzeko planteatzen duen ereduaren berri ematen. Ez ba zaude Zero Zaborren alde, zenbat zaborren alde zaude? izeneko mintegian parte hartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak.

Janez Potocnik Europako Ingurumen komisarioak Gipuzkoako esperientzia (atez ateko gaikako hondakinen bilketa sistema) adierazgarria eta garrantzitsua dela esan zuen, eta ikasteko balio dezakeela. Ingurumen komisarioaren arabera, errausketa oso urrun dago hondakin alorrean Europako Batasunak ezarritako hierarkiaren lehen lerrotik. Garbi esan zuen: "Errausketa ez da hondakinak kudeatzeko modurik egokiena". Zabortegiak ixtearen aldeko hautua onetsi zuen ingurumen komisarioak.

Gipuzkoako aurreko ereduak errauskailu proiektua zuen ardatz. Eredu zaharrak %70 erretzea aurreikusten zuen, eta berriak, aldiz, kopuru hori bera birziklatzea. Egiaztatu da European ontzat ematen dutela gure apustua. Bide horretan, ikusten ari gara indarrak non jartzen ari diren. Europako hirigune handi batzuetan lorpen eta emaitza garrantzitsuak daude birziklapenean. Guretzat aintzat hartzeko modukoa da, ezinezkoa iruditzen baitzaigu errausketara eta zabortegietara botatzea birziklagarriak diren hondakinak.

Jarrai dezagun zero zabor bidean lanean... ondo ari gara!

A.Z ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Zaborra edukiontzira bota beharrean, zakarrontzira botatzen dute:

“Txankakua zubiko pasabidean dagoen zakarrontzia da argazkian ageri dena. Norbait zaborra zakarrontzira botatzeko ohitura du, zabor edukiontzira bota beharrean. Horrelakoak ez egiteko eskatuko nioke”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: baren@elgoibarkoizarra.com 943 744 112



Euria egiten duenean ur txorro handia erortzen da autopistatik Ermuaranbide kalera: “Euria egiten duen egunetan ur asko erortzen da autopistako zubitik Ermuaranbide kalera. Ingurune horretan oinezkoentzako espaloia dago, eta jende asko ibiltzen da pasieran. Behin baino gehiagotan busti izan gara! Eskertuko genuke hori konpontzea”.




Osasun Zentrotik San Rokera doan igogailua ez dabil ondo: “Osasun Zentrotik San Rokerako igogailua askotan egoten da geldirik. Aste honetan bi aldiz topatu dut igogailua geldirik, egun berean. Martitzen goizean ez zebilen ondo, eta bazkalostean ere geldirik topatu nuen. Igogailua erabiltzera ohitu gara, eta ez dabilen egunetan falta handia egiten digu”.

ESKERTZA

MARIA CARMEN GASTEAIN ECHEVERRIA



2013ko apirilaren 5ean hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



Herritarren arteko bizikidetzari buruzko saioa antolatu du Elgoibarko Udalak biharko, hilaren 13rako

Kultur Etxean izango da jardunaldia, 9:30etik aurrera

Elgoibarko Udalak bizikidetzari eta adiskidetzeari buruzko egitasmoa jarri zuen martxan iaz, Lokarri eta Baketik elkarrekin batera. Orduetik, bizikidetzaren kultura sustatzeko hainbat saio egin dituzte, eta bide beretik antolatu dute biharko saioa ere. *Open space* izena jarri diote biharko saioari, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. Orain arte egindakoaren balorazioa egingo dute batetik, eta bestetik, adiskidetzaren kulturaren barruan iritziak konpartitzeko baliatuko dute biharkoa. “Metodologia partehartzaile” baten bidez, herritarrek euren ideiak



Artxiboko irudia

plazartzeko aukera izango dute.

Saioa 9:30ean hasiko da, eta 13:30

alderako bukatzea aurreikusi dute antolatzailerek. Kultur Etxean batuko dira.

Erreminta makinaren ekodiseinuari buruzko lau saio emango dituzte IMHn

Berrigune Sormena eta ekintzailetasuna sustatzeko topagunearen barruan, erreminta makinaren ekodiseinuari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte AFMk, Debegesak eta IMHk apirilerako. Ekodiseinua baliabideen zentzuzko erabileratik eta hondakinak era egokian kudeatzetik abiatzen da, eta erreminta makinari lotuta, hainbat erreminta erabiltzea du oinarri ekodiseinuak. Jardunaldi horietan erreminta makinaren ekodiseinua eratzen dituzten elementuak landuko dituzte, eta gai horrekin zerikusia duten esperientziak ezagutzeko aukera izango dute parte hartzaileek. Lau saio antolatu dituzte guztira: apirilaren 15ean, 17an, 22an eta 24an izango dira IMHn, 15:00etatik 17:00etara. Enpresek zein norbanakoek eman dezakete izena, doan. Informazio gehiagorako: 943 744 132 edo www.imh.es webgunera deitu daiteke.

Lanbide Heziketako jardunaldiak antolatu dituzte apirilerako



lazko jardunaldietan Isla galdaragintza esnpresa bisitatu zuten.

Lanbide Heziketako jardunaldiak antolatu dituzte laugarren urtez Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek elkarlanean. Apirilaren 22an, 23an, 24an eta 26an egingo dituzte saioak, eta besteak beste, lanbide heziketari buruzko tailer dinamikoak izango dira, Ikastolako eta BH Institutuko DBH4ko ikasleentzako. Horrez gain, enpresa mundua gertutik ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, Danobat enpresara egingo duten bisitan. Gizarteko estereotipoei buruzko hausnarketa egingo dute saio horietan, Meka, IMH eta Manahmana enpresaren laguntzarekin.

Lekua **Urazandi**



Urtarrilaren 20an 634 errepidean izan zen luiziaren ondorioz Urazandi auzoko sarre-irteeren noranzkoa aldatu zuen Udalak. Ordutik posible da Urazanditik Maalako biribilgunera irtetea, Morkaiku kaletik behera. Udalak dio aldaketa horrekin oso gustura agertu direla Urazandiko bizilagunak eta horrela lagako dutela aurrerantzean. Bestalde, Guass aurreko biribilgunea jarraia izan daitekeen ere galdegina dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, berak baitu horren gaineko eskumena, eta Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak jakinarazi du orain arte jasotako erantzunak positiboak izan direla eta uste dutela epe motzean gauzatu ahal izango dutela obra hori. Biribilgune jarraia jarriko dute, eta botoidun semaforoa oinezkoentzat.

Lekua **Pedro Migel Urruzuno kalea**

Aurki hasiko dituzte Pedro Migel Urruzuno kalea urbanizatzeko bigarren faseari. Irisgarritasuna hobetu nahi du Udalak obra horrekin. Erdia inguru eginda dago, eta ambulatorioa artekoa egin asmo dute orain. Data zehatzik ez du jakinarazi Udalak, baina hilabete honetan hasiko direla baieztatu du.

Valladolid eta Palentziara bidaia, Haizearekin

Haizea emakume taldeak Gaztela eta Leongo bazterrik esanguratsuenak ezagutzeko bidaia antolatu du ekainaren 22 eta 23rako. Valladolid eta Palentzia hiriburuez gain, Gaztelako Ubidea ere ezagutuko dute.

Haizea elkarteko bazkide direnek 145 euro ordaindu beharko dituzte bidaiagatik, eta bazkide ez direnek 155 euro. Nolanahi ere, izena ematerakoan 30 euro aurreratu behar direla azaldu dute antolatzaileek eta gainerakoa ekainean ordaindu ahal izango dutela. Prezioaren barruan sartuta daude bidaia eta pentzio erdiko egonaldia. Informazio gehiago nahi izanez gero Pitxintxu dendan eskura dezakezue.

Zabor bilketaren gaineko zerga, bi errezibotan

Halaxe egitea erabaki zuen Mendaroko Udalak, baliabideen kudeaketa hobetzeko eta zerbitzuen kostua murrizteko. Hala, hiru hilabetean behin barik sei hilabetean behin kobratuko dute aurrerantzean. Horregatik, martxoan 56,50 euroko errezi-boa jaso dute herritarrek. Gainerakoa irailaren 30ean kobratuko die Udalak.

IV. eta VI. URTEURRENAK



JUANA BARRUTIA GABILONDO
eta
RAMON CANALES TRUEBA

Zuen oroimenak indartzen gaitu

2009ko apirilaren 16an hil zen



2007ko maiatzaren 2an hil zen

FAMILIAREN BABESA

Ez da benetako irudia



Bi alaba biologiko dituzte, baina lau umerekin bizi dira etxean Maider eta Martin —erreportajeko izen guztiak asmatuak dira, babesean hartutako haurren eta haien familia biologikoen segurtasunaren izenean ezin baita izenik eman—. “Herri hau txikia da, eta mundua zapi bat”, arrazoitu du Maiderrek. Familia biologikoen aldi batez behar bezala zaindu ezin dituzten haur eta nerabeak zaindu, elikatu eta familia baten goxotasunean hezteko ardura hartu zuten duela bi urte, eta “ezin gusturago” daude hartutako erabakiaz. “Izugarri esperientzia aberasgarria izan da”.

Ainara Argoitia

Bizipen txarrak izan dituen haurrari laguntzeko gaude. Argi daukagu helburua ez dela jatorrizko familia ordezkatzea, eta horrenbestez, garbi daukagu ez direla betirako egongo gurekin. Horregatik, iristen diren momentutik bertatik hasten gara etxean agurrerako prestatzen”, azaldu du Maiderrek. Berak eta senarrak duela bi urte eman zuten izena Foru Aldundiaren Harrera Familia Profesionalizatuaren programan (Eudes fundazioak kudeatzen du), eta gaur, bost laguneko familia osatzen dute. Maria eta Paule 6 eta 3 urteko alaba biologikoen gain, aldi batez eurekin biziko dira Laura eta Jon, 11 urteko eta bi hilabete-ko haurrak.

Gauza jakina da hurrek familia giro be-

roa eta sendoa behar dutela behar bezala hazi, bizi eta hezteko, baina denek ez dute aukera hori, ez behintzat euren berezko familiaren barruan. Zenbait kasutan, gurasoek eurek eskatzen dute laguntza, arrazoi bat edo beste tarteko, euren seme-alabak denbora batean behar bezala zaintzeko gai ez di-

**Gipuzkoan,
254 ume daude
harrera etxeetan,
eta 334 harrera
familietan**

rela sentitzen dutenean. Beste zenbait kasutan, berriz, Aldundiak erabakitzen du ume edo nerabe horren ongizatea bermatzeko modu bakarra jatorrizko familiarengandik urruntzea dela. Batzuk zein besteak, Aldundiaren tutoritzapean gelditzen dira halakoe-tan, “desorientatuta”. Haietako batzuk, erakundearen ardurapeko etxebizitzetan bizi dira, eta hezitzaile, psikologo eta pedagogoen osatutako talde baten arreta jasotzen dute (Gipuzkoan 254 haur zeuden abenduan egoera horretan). Zorionekoek, berriz, harrera familietan topatzen dute berotasuna. Harrera familiek adingabe horiek zaindu, elikatu eta hezteko obligazioa hartzen dute beren gain, haren familiak zaindu ezin duen denborarako. Hala ere, haur eta nerabe horiek dituzten

ezaugarriak direla-eta —izaera gatazkatsua, adina...—, zaila izaten da askotan haientzako familiak topatzea, eta topatuta ere, beti ezin izaten zaie erantzun egokia eman. Kasu horiek harrera familia profesionalizatueta bideratzen dira. —Gipuzkoan, 313 harrera familia boluntario zeuden abenduan, eta 21 ume zeuden familia profesionalizatueta—.

Bizi duten egoera gogorrean, zorionekoak dira Laura eta Jon, familia lortu dutelako. “Familiak behar dira. Ezin duzu imaginatu hemen urrutira joan gabe zenbat ume dauden guraso premian”, ohartarazi du Mainerrek. Eurek ez dute berez gurasoak izateko nahi berezirik, badiarelako lehendik ere, baina egoera zaila bizi duten haurrei zoriotsu izateko aukera eman ahal izateak betetzen ditu; bistan da, soilik seme-alaba batengatik egiten dena egiteko gai direlako: diren bezalakoak onartu (euren historia, familia eta izaerarekin) eta, beti samurrak izango ez diren arren, sortu daitezkeen arazoei konponbidea emateko eta adingabe horiek familiaren goxotasunean hezteko prest daude. Eta hori, egunean 24 orduz eta urtean 365 egunez, programa honek “dedikazio eskusiboa” eskatzen duela. Trukean, harrera egoitzetako hezitzaile profesionalak jasotzen dutenaren pareko soldata jasotzen du Mainerrek, eta Foru Aldundia den diru-laguntza, haurren mantenurako.

Lorik gabeko gauak

“Beti ez da erraza. Jaioberrien kasuan, ez da aparteko zailtasunik izaten, baina koskortuta datozenen kasuan gorabehera gehiago izaten dira. Kontuan izan behar dugu harrera familietara bideratzen dituzten haurrek gabezia handiak izaten dituztela. Asko galduta sentitzen dira, eta ondorioz, portaera arazoak izaten dituzte”, dio. Harrera familia profesionalizatuena, kasuan, gainera, hori nabarmenagoa da. Izan ere, adingabeen egoitzetan denbora luzean egon direnak edo harrera familia boluntarioetan moldatzerik izan ez dutenak izaten dira programa horretara bideratzen dituztenak. “Moldagaitzenak”. Horregatik, hartzaile profesionala izateko, giza zientziekin lotutako titulazioa eduki behar da ezinbestean.

Eta ez, dena ez da samurra izan Mainer eta Martinenean ere. Tokatu zaie eurei ere egoera zailak kudeatzea, bereziki zaharrenekin, baina Mainerrek nahiago izan du ez kontatu. “Etxean lauretan zaharrena izanda,

Laurak txikienentzat erreferente izan beharko luke berez, baina gure alabak ere kontziente dira Laura berezia dela eta laguntza behar duela”, nabarmendu du horren harira. Laurak denbora luzea egin du harrera etxe batean. “Egoitzan dena eginda topatu du beti eta horregatik beretzat dena da berria. 14:00etan etxera etorri eta bazkaria mahaian topatu behar duela uste du. Ez daki ogia erosi behar denik ere. Dirua zer zen ere ez zekien etorri zenean, eta portaera arazo larriak zituen. Ez zuen ulertzen berak ere betebeharrak batzuk bazituela. Zorionez, hasi da familia baten funtzionatzeko modua ulertzen, baina urteetako karga darama, eta zaila da horri buelta ematen”, azaldu du Mainerrek. Bestelakoa da Jonen kasua. Jaiotze eta bi egunera jaso zuten, ospitalean, ama biologikoak behar bezala zaintzeko gai ez zela esana zialako aurrez gizarte laguntzaileei.

“Motxila astuna daramate haur hauek. Ikaragarri bizitza gogorra izan dute”

“Goxotasunik ezagutu ez duten haurrak dira. Jonen aurretik izan genuen haurtxoak, esaterako, estimulu falta itzela zeukan. Hiru-lau hilabeterekin ez zuen keinu bakar bat egiten, ezta barretxo bat ere. Bere ama biologikoaren Galizako senide batzuk hartu zuten gero. Hemendik joan zenerako hasia zen keinuak egiten. Txikieria ematen du, baina izugarrizko poza ematen du horrek”, dio.

Egoerarik onenean, sei hilabete egingo ditu Jonen eurekin, baina gerta daiteke luzeagoa. Tarte horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia —haur horren tutorea— saiaturiko da haren gertuko senideen artean umea hartuko duen pertsona egoki eta arduratsua topatzen.

Lauraren kasua ezberdina da. 18 urte bete arte egongo da harrera familian, eta egun hori iristen denean autonomo izan daiteke hezi behar dute. Jakin badakite ez dutela egiteko erraza. “18 urterekin zein da guztiz autonomoa?. Bada, atera kontuak zer izanogo den ume hauen kasuan! Motxila astuna

daramate bizkarrean, ikaragarri bizitza gogorra izan dute. Zer pentsatua ematen du, baina ez dago beste aukerarik. 18 urte betetzean erabakiak hartzeko gai izan behar dira”. Horregatik, egunero-egunero, haren jarraipena egin behar izaten du Mainerrek, Foru Aldundira bidaltzeko. “Txikiekin ere egiten da, baina ez egunero”, zehaztu du.

Bi kasuetan, bisita erregimen bat ere ezarri diete. Hala egiten da, beti ere harreman hori guraso biologikoentzako edo adingabearentzako kaltegarria ez baldin bada. “Leku izendatueta egiten dira beti bisitak. Guk umea eramaten dugu eta profesional baten zaintzapean batzen dira haurra eta haren familia biologikoa. Ahal den guztietan mantentzen da harreman hori, itzulera errazagoa izan dadin”, gaineratu du.

Esperientzia aberasgarria

Joan-etorri handia dago Mainerren etxean. Bi haur hartzeko prestatuta daude. “Programa honetan sartzeko, etxeko guztiak konforme egotea eta adingabeen beharretara egokitutako etxebizitza izatea eskatzen dute, eta guk bi plaza dauzkagu. Horietako bat larraldietarako da. Beraz, beti egon behar dugu norbait hartzeko prest. Hori bai, bat joan eta bestea etortzen den bitartean hilabeteko atsedena ematen digute”. Jonen kasua da hori. Ospitalean jaso zuten, jaiotze eta bi egunera, eta halaxe hartu dituzte bere aurretik izan dituzten beste lau haurtxoak ere. Horregatik, beti daude haurrak hazten. “Begiratu nire begi-zuloak. Lorik egin gabe nabil aspaldian, baina zoriotsu naiz. Nik beti esaten dut bizimodua lehenengo seme-alaba jaiotzen denean aldatzen dela, eta ez hirugarrenarekin”, dio.

Euren alaba biologikoak eta ingurukoak ere ohitu dira eritmo hortara. Ohitu dira familia uneoro handitzen eta aldatzen ikustera. Hori nola bizi duten galdetuta, ez du zalantzarik egin Mainerrek: “Ikaragarri ondo. Desiatzen egoten dira etxean beste norbait hartzeko. Norik bere egitekoak ditu gurean, eta denontzako da esperientzia aberasgarria”. Nabari zaio aurpegian ere. Bata bestearen atzetik datozkio adibideak, baina ez dauka gehiagorako astirik. Hiru ikastolan ditu, baina txikiena zain dauka. “Ez ahaztu familiak behar direla esaten. Ezin zara imaginatu hemen bertan ere zelako premia dagoen”, bota du berrito, alde egin aurretik.

Martxoan...

JAIOTAKOAK



Bittor Diez Alvarez
Otsailak 1
Roberto eta Laura



Koldo Iriondo Iriondo
Martxoak 24
Xabier eta Irune



Jone Ormazabal Diego
Martxoak 6
Ivan eta Leire



Oier Otaño Martin
Martxoak 20
Iñigo eta Leire



Jon Egaña Artzmendi
Martxoak 23
Gotzon eta Idoia

Asier Retolaza Rubio
Martxoak 14
Joseba eta Ana Maria

Maialen De la Maza Barandela Martxoak 24
Asier eta Ane Miren

Ariane Garcia Rolo
Martxoak 27
Aritz eta Maria Dolores

HILDAKOAK

Antonio Puyadena Garmendia • 82 urte • Martxoak 4
Karmelo Iriondo Zuloaga • 88 urte • Martxoak 6
Milagros Mendikute Iriondo • 82 urte • Martxoak 6
Iñaki Argarate Iriondo • 50 urte • Martxoak 7
Maria Unamunzaga Unamunzaga • 89 urte • Martxoak 8
Vicente Iriondo Egia • 86 urte • Martxoak 17
Jose Zabala Juaristi • 87 urte • Martxoak 17
Lorenza Gozalo Rubio • 79 urte • Martxoak 17
Maite Zabala Mendizabal • 80 urte • Martxoak 19
Angela Carnero Cespedes • 81 urte • Martxoak 21
Juan Davila Ibargutxi • 92 urte • Martxoak 21
Inocente Ruiz Lopez • 75 urte • Martxoak 25

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295


Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.

ESKERTZA



ANGELITA LIZUNDIA ZABALETA

2013ko apirilaren 5ean hil zen, 76 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.




ESKERTZA



JOSE MARI ZABALETA URBIETA

2013ko apirilaren 4an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



Erretratu zaharra



1958

Aste honetako erretratu zaharra Mila Aros-tegik ekarri du BARRE-nera. 1958. urtean ateratako argazkia da, San Bartolome jaietan, hain zuzen ere. Garai hartan argazkilariak etortzen ziren Elgoibarrera paisaje desberdinak irudikatzen zituzten panelekin, eta haietako baten aurrean aterata dago argazkia. Gogora ditzagun zeintzuk diren emakume horiek: Begoña Juaristi (†), Benita Juaristi, Maria Etxaniz, Sebastiana Sodupe eta Maria Ines Arriola.



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 740 670

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Laketak: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

GRUP
PUNILMAY

G
A
U
TXO

Zatoz
gure taberna
berritura!

Inaugurazioa

Apirilaren 18an, asteazkena,
19:00etan.

DANCE & SMILE hip-hop
taldeak parte hartuko du

Eskaerretarako
943 740 955



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

E
X
I
K
I
B
A
R
T
E
N

naia fernandez

11 urte



Nor jango zenuke musuka?

Gustuko mutilen bat. Baina hemengoa, eta ez famoso horietakoa.

Zeren alde manifestatuko zinateke?

Euskal Herriaren independentziaren alde.

Aginte makila emango balizute zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?

Gazteentzako aukera handituko nuke. Gazteleku gehiago zabaldu eta daudenak berriro eta handituko nituzke.

Zer dauka Mendarok beste herriek ez dutena, eta zeren falta igartzen duzu?

Falta, dendak falta ditu, arropa dendak-eta. Horren, kontra, baina, ospitala daukagu hemen, eta horretan behintzat pribilegiatuak gara.

Zer dago krisian?

Batetik, ekonomia, baina elkarrenganako errespetua ere bai.

Krisi ekonomikoa aipatu duzu. Nor da horren erantzule?

Gu denok. Behar duguna baino gehiago erosten dugu, eta, gainera, iruditzen zaigu beti falta zaigula zer bait.

Zer egingo zenuke loteriako sari handia tokatuko balitzazu?

Lehenengo eta behin, zati bat gorde egingo nuke, hemendik urte batzutura etxea erosteko-edo. Beste zati bat familiakoentzako gordeko nuke, beharra dutenentzako, eta gainerakoa orain egin edo eros ezin ditzakedanak egiteko edo erosteko erabiliko nuke.

11 urte dituzu. Zeintzuk dira zure adinekoen kezka nagusiak?

Nirea orain momentuan Institutua. Azkeneko urtea da hemen, Mendaroko ikastolan, eta Institutura joate horrek sortzen dit kezka, ez dakidalako zer topatuko dudan. Hemengo giroa botako dut faltan.

Noiz egin zenuen negar azkenekoz?

Negar errezekoa naiz. Burgosen txakurren inguruko film bat ikusi nuen azkena, eta negar egin nuen.

Miresten duzu norbait?

Mirestu ez, baina Bisbal edo antzeko beste abeslari batzuk ezagutuko nituzke gustura.

Bizi daiteke whatsapp-ik gabe?

Bai, bai. Baita sakelako telefonorik gabe ere!. Nik whatsapp-a asteburuetan bakarrik erabiltzen dut.

SMS bat jaso duzu sakelako telefonoan, eta ez dakizu norena den. Honela dio: "Bihotza lapurtu didazu. Izugarri maite zaitut". Zer egingo zenuke?

Poza hartuko nuke beharbada, baina norena den jakin ezean ez nioke kasurik egingo. Zeinek bidali didan jakingo banu, berriz, aurrez aurre esateko esango nioke, gustukoa bada behintzat.

Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?

Benetako lagunei.

18 urte betetzean egiten gara adinez nagusi. Eta pertsona heldu?

Ez dakit. Batzuk 18rekin eta beste batzuk 30ekin. Ez dago jakiterik. 14 urterekin ere izan dezake batek burua bere lekuan.

Adinez nagusi egiteak ilusioa egiten dizu? Zer da aldatzen dena?

Gidatzeko baimena ateratzen saiatuko naiz beharbada, baina nire bizitza ez dut uste asko aldatuko denik. Hala ere, ilusioa egingo dit.

Oporretan joateko leku bat?

Kanariar uharteak. Eguzkia eta hondartza oso gustuko ditut.

Reala edo Athletic? Athletic.



Zergatik egiten du bira Lurrak?

David Romero 6 urte

Mundua biribila delako, eta gauza biribilak bueltaka ibiltzen direlako. Baina poliki-poliki ematen du buelta munduak, eta horregatik gaude gu geldi. Espazioan dauden izarrek eta beste planetek ere ematen dute buelta.



Añes Galarraga 6 urte

Biribila delako. Mapan marra fin asko eta marra potolo bat daude. Marra potolotik gora dauden lekuetan eguna da, eta hortik beherakoetan gaua, eta gero, alderatiz. Antzina pentsatzen zuten karratua zela Lurra, eta urrutira joanez gero, erortzeko beldurra izaten zuten. Urtea behar du buelta osoa emateko.



Maddi Maiora 6 urte

Munduko bola bat badauka aitaxok etxean, eta bai, munduak buelta ematen du, biribila delako, baina gu ez gara mugitzen. Beste aldean, hor behean, pinguinoak egongo dira. Badago espazioan beste mundu bat aro bat daukana, baina ez dakit mugitzen den.



Intza Uranga 6 urte

Biribila delako eta beste gauza batzuegatik ere bai. Adibidez, denok ikusi ahal izateko eguzkia. Etxean ere badaukat munduko bola bat eta parte handi bat itsasoa da. Espazioan, berriz, harri asko daude eta ezin dugu arnasarik hartu.



Ametz Ormaetxea 6 urte

Ez dakit. Biribila delako? Telebistan ikusi dut eta Lurra biribila da. Igual horregatik ematen du buelta. Triangelua balitz ez luke bueltarik emango eta karratua balitz ere ez. Buelta ematen du, baina gu ez gara konturatzen. Gu beti leku berean gaude.



Unai Gallo 6 urte

Eguna eta gaua egoteko. Nire izeba eta osaba Ekuadorren bizi dira, eta badakit ezin die dala telefonoz deitu hemen eguna denean, han beraiek lo daudelako. Eta alderantziz, hemen gaua denean han eguna da.





APOLINAR **ALDALUR**

MARGOLARIA

“Lana ondo egitea gustatu izan zait beti”

Itziarren jaio zen Apolinar Aldalur orain dela 83 urte, Lastur bailarako Arrasketa baserrian. Hala ere, lotura handia izan du beti Elgoibarrekin, eta bere burua elgoibartartzat duela aitortu du. Erretiroa hartu zuenean hasi zen koadroak egiten, orain dela hogeit bat urte gutxi gorabehera, eta ordutik gaur egunera arte makina bat obra egin ditu. Orain dela bospasei urte lokal bat erosi zuen Upaiz Zaharra kalean, eta hantxe jarri du margo estudioa. Goizean baserriko lanak errenditu ostean, margotzen ematen du arratsaldea. Margotzea gustatzen zaio, eta ordu asko eskaintzen dizkio margoari. Hilaren 21era arte egongo dira ikusgai bere margolanak, Kultur Etxeko erakusketa gelan, 18:30etik 20:30era.

Lasturren jaiotakoa zara, baina zure burua elgoibartartzat daukazu. Kontaiguzuz Elgoibarrekin daukazun lotura.

Gazte-gaztetatik izan dut Elgoibarrekin lotura. Garai hartan ez zegoen gaur egun bezalako eskolarik, eta Soraluzeko Osuma enpresan ikasi nuen ofizioa. Bigarren mailako ofizial titulua eman zidaten. Urtebete egin nuen han eta gero Elgoibarrera etorri nintzen Ger enpresara. Han lehenengo mailako ofizial titulua lortu nuen. Gero, 60ko hamarkadan Goiti kooperatiba sortu genuen eta hantxe egin nuen lan, 1994an erretiroa hartu nuen arte. Hasierako urteetan Elgoibarren bertan bizi izan nintzen, baserrira joateko biderik ez geneukalako. Gero, bidea egin genuenean, eguna pasatzen nuen Elgoibarren, baina lotara baserrira! Eta gaur egun ere horrela ibiltzen naiz. Goizean baserriko lanak egiten ditut, eta arratsaldetan etortzen naiz Elgoibarrera. Estudioan egoten naiz koadroak margotzen eta iluntzean joaten naiz etxera. Neure burua elgoibartartzat daukat.

Nola hasi zinen marrazten?

Ondo ezagutzen dut nire burua eta nik badakit ez dudala balio txikiteoan ibiltzeko edo koadrilan karta jokoa jarduteko, eta banekien erretiroa hartzerako zerbait egiten hasi behar nuela. Makina bat pentsamendu izan nituen garai hartan! Lanerako ere dibujo lineala ikasi nuen neure kasara, makinaren piezak marrazteko, eta hortik jarraitzea pentsatu nuen. Erretiroa hartu aurretik, urte erdi bat egin nuen Eibarren marrazketa artistikoa ikasten. Iluntzeko 20:00ak aldean iritertzen nintzen lanetik, eta Eibarko Arte Ederren eskolara joaten nintzen ondoren. Maria Barrera izan nuen irakasle. Oso irakasle ona zen.

Hogeitabat urte pasatu dira orduetik. Zein oroitzen dituzu?

Eibarren dibujoa ikasi nuen, karbonzilloaren teknikarekin. Figura bat egin nuen kurtsoa amaitzerako, eta Eibarko udaletxean jarri zuten ikusgai nire figura hura eskolaren erakusketa batean. Orain etxean gordeta daukat figura hura!

Eibarkoa bukatu ostean, Elgoibarko Egur arte tallerrean hasi zinen, ezta?

Bai. Orduantxe jarri zuten martxan Egur arte eskola eta hasieran hiruzpalau lagun hasi ginen. Javi Herrero izan genuen irakasle. Gaur egun Bilbon bizi da. Gerora neure kontura margotzen jarraitzeko ilusioa neu-

kan eta lokal bat hartu nuen, nire margo estudioa bertan jartzeko.

Zer marraztea gustatzen zaizu?

Denetik marrazten dut. Paisaje bat gustatzen bazait, huraxe margotzen dut. Lanik zailena gustuko lekuak bilatzea egiten zait. Bodegoiak ere egiten ditut, eta pertsonen erretratuak ere egiten ditut. Hurrena Benito Lertxundiaren erretratu egiteko asmoa daukat.

“Neure gustua egin arte ez dut koadro bat amaitutzat ematen”

Zein teknika erabiltzen duzu koadroak egiteko?

Argazkietatik abiatuta egiten ditut koadro gehienak. Egunkaria hartzen dut egunero eta handik mozten ditut gustatzen zaizkidan erretratuak. Beste batzuk buruan gordetzen ditut. Elgoibarko elizaren koadroa margotzeko, adibidez, buelta bat baino gehiago egin behar izan nituen plazara detaile guztiak margotzeko. Nik baserrian ikasi dut lan egiten, lan gogorra egiten eta tailerrean ere makina konplikatua muntatzea gustatzen zi-

tzaidan. Margotzen ere, detaile guztiak marraztea gustatzen zait eta den-dena margotu arte ez dut koadroa bukatzen. Lana ondo egitea gustatu izan zait beti, eta lan zaila ere gustatzen zait.

Zenbat denbora eskaintzen diozu koadro bati?

Hori ez daukat esaterik, ez dakidalako. Ezin dut kontatu koadro bakoitzari eskaintzen diodan denbora. Neure gustukoa egin arte segi egiten diot. Nik badakit zer nahi dudan ikusi, eta neure gustua egin arte ez dut koadroa amaitutzat ematen. Gauzak ez bazaizkit ondo iritertzen amorrazio uneak ere izaten ditut, ez pentsa!

Margolari asko gaztetan hasten dira margotzen, zu aldiz, erretiroa hartzean.

Bai. Gaur egungo gazteek ez daukate margorako afiziorik. Koadroak egin eta saldu nahi dituzte, eta ez badute saltzen ez dute gehiago marrazten. Koadroak saltzea zaila da; nere nahia koadroak erakustea da.

Hilaren 21era arte egongo dira ikusgai zure koadroak. Zer sentitzen duzu zure lanak erakustean?

Gustatzen zait egiten dudana erakustea. Jendea etortzen da koadroak ikustera, eta ez da nire burua famatzearen, baina jendeak esaten dit oso marrazketa teknika onekoak direla nire koadroak. Hori entzuteak poza ematen du.

Ainhoa Andonegi



JOSE RAMON SOROIZ

Aktorea



Umorea, intriga eta drama uztartzen du *Etzi* antzezlanak. Down sindromedun pertsonengana eta beraien familiengana hurbiltzen duen obra da, eta down sindromedun pertsonen bizimodua nolakoa den erakustea du helburu. Jose Ramon Soroiz eta Pilar Rodriguez aktore ezagunekin batera, Gorka Zufiaurre down sindromedun mutilak ere parte hartu du antzezlanean. 20:30ean izango da antzerkia gaur, Herriko Antzokian.

“Down sindromedunen bizimodua gertutik ezagutzeko aukera ematen du antzezlanak”

‘Etzi’ antzezlanaren taularatuko duzue gaur iluntzean Herriko Antzokian. Zein da zure papera?

Antzezlaneko protagonista Bruno da, down sindromea duen mutikoa, eta haren aitona-ren papera egiten dut nik. Brunoren gurasoak joan egin dira, eta anaia Mattin eta aitona-amonekin bizi da. Down sindromea duen mutikoaren bizimodua kontatzen du antzerkiak: etxean nola jokatzeko duten, euren beldurrak, kezkak...

Aktore ezagunarekin batera, Gorka Zufiaurre down sindromea duen mutila da protagonista. Nolakoa izan da berarekin lan egitea?

Fenomeno bat da! Izugarria izan da berarekin lan egitea! Down sindromedun jendearen artean ere maila diferenteak egongo dira, baina mutiko honek daukan ahalmena sekulakoa da. Zuzendariak esandako guztia profesionaltasun osoz betetzen zuen, eta oso gustura egon gara. Errealismo handia ematen dio obrari.

Antzerkia, telebista eta zinea ere egin izan duzu. Zein alorretan sentitzen zara gusturago?

Antzerkian. Antzerkiko prozesua gustatzen zait gehien eta antzerkia egiten sentitzen naiz lasaien. Entseguak egiten dituzu eta gero eszenatokira igotzen zara entsaiatutakoa antzeztera. Areto-ko isiltasuna, publikoa, geroko txaloak... Dena momentuan bizi-tzen duzu eta zuzeneko sentsazio horrek barruan pizten duten sentimendua izugarria da. Telebistak eta zineak ez daukate horrelakorik. Telebistan ere lan dezente eginikoa naiz, baina zinean gutxi ibili naiz. Une honetan pelikula bat grabatzen ari naiz. *Loreak errepidean* izena jarri diote, eta paper txiki bat egingo dut bertan. Obra bateko nagusia naiz. Hemen gabilta Oiartzungo auzo batean katuska handiak jantzita grabaketa lanetan. Horrez gain,

Jokin Oregik zuzendutako umeentzako *Alabatxo* izeneko antzerkian ere lanean ari gara urritik. Iaz Xixongo feria batean umeentzako obren lehiaketa irabazi genuen, eta oso ondo funtzionatzen ari da. Testurik gabeko antzerkia da, kuriosoa benetan. Esperientzia berria eta polita izan da niretzat.

Gauza asko egindakoa da Jose Ramon Soroiz, baina seguru oraindik ere Joselontxo izena gainetik kendu ezinda zabilzala...

Bai, hala da! Joselontxo lehendakaria izan nintzen, Joselontxo ertzaina ondoren, Goenkaleko Joselontxo... Leku guztietan Joselontxo izan nintzen garai batean. Anaiaren izena da Joselontxo. Bi eta bat telesailako protagonistak beste izen bat zeukan hasieran, baina anaiaren izenak grazia egiten zion zuzendariari eta anaiak baimena eman zidan bere izena erabiltzeko.

Bi eta bat telesailaren bigarren zatia egin duzue orain dela gutxi. Nolako harrera izan du?

Hasierako hiru aktoreak bakarrik izan bagina harrera hobea izango lukeela uste dut. Familia sartu zen bigarren zati honetan eta gertukoek esan zidaten hori ez zela *Bi eta bat*.

Animatu itzazu elgoibartarrak ‘Etzi’ antzerkia ikustera joateko.

Saio polita, eta hunkigarria da. Izugarria da down sindromea duen mutiko hori oholtza gainean ikustea. Down sindromedun jendearen bizimodua gertutik ezagutzeko aukera ematen du: nolakoak diren, zein bertute eta zein gabezi dituzten... Denok eza-gutzen dugu down sindromea duen norbait, baina ez dakigu benetan nolakoak diren eta antzerki honek pertsona horiek ezagutzeko aukera ematen du. Ikustea merezi duen antzezlan da, benetan.

‘Emakumea eta memoria historikoa’ zikloa antolatu dute herriko hainbat eragilek apirilerako

Film bat eta antzerki emanaldia egongo dira zikloaren barruan

Elgoibarko Emakumeen Asanbladak, Elgoibar1936 taldeak eta Ongarrik *Emakumea eta memoria historikoa* zikloa antolatu dute apirilerako. Emakumeen Asanbladako kideek esandakoaren arabera, sistema kapitalista patriarkalak araututako gizartea eraldatzea dute helburu, eta etorkizunari begira bizi eta borrokatzen dihardute: “aurrera begira, baina atzetik dakarkiguna ahaztu gabe dihardugu lanean; emakumeek historikoki jasan duten zapalkuntza ahaztu gabe”. Hortaz, aurretik egon zirenen ondarea jaso eta zabaltzeko antolatu dute ziklo hau. Egitarauaren barruan, film bat eta antzerki bat antolatu dituzte: apirilaren 18an *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* luzemetraia emango dute Herriko Antzokian (21.30ean), Intxorta 1937 kultur elkar-



tearekin elkarlanean.

Apirilaren 26an, berriz, Karrika antzerki eskolak *Lurra astinduz* antzezlan taularatuko du Herriko Antzokian (20.30ean). Antzezlan hau Joxe Martin Urrutia ‘Txotxe’ elgoibartarrak idatzi eta

zuzendu du. 1936ko altxamenduaren ondorengo egunak kontatzen dira antzezlanean, eta egun haiek bizi izan zitezutenen bizimodura gerturatuko du ikuslea. Maitasun istorio bat ere izango du antzezlanak oinarrian.

Santana jaiak antolatzeko jai batzordea osatzeko deia egin du Mendaroko Udalak



Mendaroko Udalak Santana jaiak antolatzeko batzordea sortu nahi du, eta horretarako, herritarrei egin die deia. Apirilaren 16an batuko dira Lagun Betikoak elkartearen ondoko tabernan, 19:00etatik aurrera. Herriko elkarte, ostalari edota norbanakoak gonbidatu dituzte, denen artean 2013ko jaiak antolatzeko.

Bideo Forum saioa, apirilaren 19an

Haizea emakume taldeak bideo forum saioa antolatu du hilaren 19rako. *Conociendo a Jane Austen* pelikula landuko dute, Loredi salegi dinamizatzaileekin. 21:30ean hasiko da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kafea eta pastak eskainiko dituzte antolatzailerak.

Izar eta Zenaida: Indar magikoa’ antzezlan, domekan

Eidabe kultur konpainiak Izar eta Zenaida: indar magikoa antzerkia taularatuko du domekan, Herriko Antzokian. Umeentzako antzerkia da, baina familian ikusteko aproposa. Anabsaren erdian Izar neska euskalduna eta Zenaida kubatarrak Elgar ezagutuko dute. Elkarri eskua ematean indar magikoa sortuko da. 16:30ean hasiko da ikuskizuna.

Liga irabazteko partida erabakigarria jokatuko du Concepto Egilek bihar, Zierbena bigarren sailkatuaren kontra

19:30ean hasiko da partida Olaizaga kiroldegian

Puntu bakarrarekin nahikoa dauka Concepto Egile areto futbol taldeak liga txapelketa irabazteko. Joan zen asteburuan izan zuen Arnedon txapelketa irabazteko lehen aukera, baina elgoibartarrek huts egin zuten. Orain arte partidarik galdu gabe zeuden Concepto Egile taldekoak ligan, baina joan zen asteburuan 7-2 galdu zuten Arnedoko taldearen kontra. Hala ere, liga irabazteko beste aukera bat izango dute bihar. Elgoibartarrak lider dira sailkapen nagusian, eta Zierbena bigarren sailkatua hartuko dute etxean. 19:30ean hasiko da partida Olaizaga kiroldegian, eta zaleei dei berezia egin diete zuzendaritzako ki-deek, Concepto Egile animatzera joan daitezten. 18:30ean Kalegoen plazan batuko dira, herriko hainbat musikarirekin batera kiroldegira joateko. 19:20an CD Debabarrena klubeko alebin mailako bi taldeek hamar minutuko partida jokatuko dute elkarren aurka, eta horren ostean hasiko da partida nagusia. Etxeko taldeak berdinketa edo garaipena lortzen badu ospakizun ekitaldiren bat antolatu-ko dutela aurreratu du klubak.



Artxiboko irudia

Hirugarren egin du Laukok Euskadiko Jubenil Nesken Txapelketan



Euskadiko jubenil nesken txapelketa jokatu zuten asteburuan Elgoibarren, eta Sanloko Lauko taldeak hirugarren egin zuen. Zarauzko Aiala taldeak irabazi zuen txapelketa, eta Etxeberriako Kukullagak egin zuen bigarren. Ermuko Errotaberri taldea azken postuan sailkatu zen. Sanloko arduradunek zorianak eman dizkiete jokalariei, entrenatzaileei, eta jarraitzaileei, eta eskerrak eman dizkiete, era berean, gurasoei, erakundeei, babesleei, laguntzaileei, epaileei, federazioari, komunikabideei eta txapelketa antolatzen lagundu dieten guztiei.



Adamello mendi eski lasterketan hartu du parte Arkaitz Irureta elgoibartarrak, Javi Dominguezekin

Arkaitz Iruretak Adamello mendi eski lasterketan hartu du parte Italiako Dolomitetan. Javi Dominguezekin osatu zuen bikotea Iruretak, eta ia bederatzi ordutan bukatu zuten proba. 50 kilometro pasako ibilbidea izan zuen lasterketak, eta elgoibartarrentzat orain artean eginiko lasterketan luzeena izan zen. 350 bikote inguruk eman zuten izena, eta 200 bat iritsi ziren amaierara. Ibilbidean zehar hainbat arazo izan zituztela azaldu du Iruretak, eta "nekatuta baina pozik" bukatu zutela adierazi du.

Ehun bat lagunek hartuko dute parte domekako Enduro Txapelketan

9:00etan hasiko da proba, Mintxetako aparkalekuan

Urno bitza motoklubak antolatuta, Elgoibarko Enduro Txapelketa jokatu-ko dute domekan, Mintxeta inguru-ko zelaietan. Gipuzkoa, Bizkai, Araba, Gaztela Leon eta Errioxako ehun partaide inguru batuko dira guztira, eta horien artean Euskadiko Txapeldunak ere etorriko dira. Paddock-a Mintxetako aparkalekuan egongo da, eta zirkuitoa Azkaratetik Albixuri bitartera prestatu dute. 30 kilometro inguruko ibilbidea izango da, eta partaide-ek ordubeteko denbora izango dute gehie-



nez. 9:00etan hasiko da txapelketa eta 14:30 alderako amaituko da.

Domekan jokatu dute Mendaroko mendi lasterketa



Domeka honetan jokatu dute Mendaroko mendi lasterketa. Herriko Enparantzatik abiatuko dira korrikalariak, eta 1.350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute, 24 kilometroko ibilbidean. Iaz 113 lagunek hartu zuten parte, eta Imanol Goñi eta Maite Maiora izan ziren irabazleak.

Oraindik izena eman ez dutenek, domekan bertan ere izango dute aukera, hoguei euro ordainduta. Proba egunean 8:15ean zabalduko dute izena emateko aukera, eta 9:30ean itxi. Informazio gehiagorako: mte.mendaro@hotmail.com.

Aiastian jokatu dute Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako hirugarren jardunaldia, bihar

Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa aurrera doa, eta asteburu honetan Aiastian jokatu-ko dute txapelketako hirugarren jardunaldia. Lehenengo bi jardunaldiak Asola Berriko Bittor Ugarteburuk irabazi ditu, eta joan zen astean, San Migel taldeko Jose Irusta izan zen bigarrena Floreagako bolatokia. Biharko jaurtialdia 17:00etan hasiko da.

EMAITZAK

FUTBOLA

Arenas 1 – Haundi 0 (3. maila)

ARETO FUTBOLA

Arnedo 7 – Concepto Egile 2 (2B)

ESKUBALOIA

Etxebarri 21 – Aiala Zar. 21 (Kad. neska)

Lauko Elg. 25 – Errotaberri Ermua 22 (Kad. neska)

Aiala Zar. 22 – Errotaberri Ermua 20 (Kad. neska)

Etxebarri 27 – Lauko Elg. 26 (Kad. neska)

Errotaberri Ermua 17 – Etxebarri 23 (Kad. neska)

Lauko Elg. 23 – Aiala Zar. 29 (Kad. neska)

PILOTA

Deba Arroko txapelketa

Soraluze 22 – Lagunak 8 (Nag.)

Bergara 22 – Lagunak 17 (Jub.)

Bergara 22 – Lagunak 7 (Kad.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13

12:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Kad. A)

16:30 Haundi – Laudio (3. maila)

18:30 Elgoibar – Orioko (Jub.)

Domeka, 14

16:30 Elgoibar – Mutriku (Erreg.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

19:30 Concepto Egile – Zierbena (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

10:00 Deca Elg. – Bergara Soraluze (Inf. mut.)

11:15 Bankoa Elg. – Egia (Inf. mut.)

12:30 Murgil Elg. – Pulpo (Inf. neska)

17:00 Txariduna Elg. – Tolosa (Kad. mut.)

Domeka, 14

10:00 Gabaz Elg. – Bergara (Sen. mut.)

11:30 Tecnifuelle Elg. – Aiala A (Sen. neska)

LANA.....

Eskara

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. ☎ **602 068 313**
- Neska euskalduna eskaintzen da kontabilitate eta administrazio lanak egiteko. Orduka edo larunbat goizetan. ☎ **634 627 461**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentzia onak. Papelak legez ditut. ☎ **606 118 964**
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko. Orduka. ☎ **680 121 252**
- Mutil arduratsua zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. Edozein momentutan lanean hasteko prest. ☎ **692 332 871**
- Neska arduratsua lanerako prest: umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Garbiketarako ere egiten ditut. ☎ **686 052 084**
- Neska lanerako prest: zerbitzari, nagusiak edo umeak zainduz, sukalde laguntzaile, garbitzaile... ☎ **608 474 923**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 625 929 / 943 531 378**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Autoa daukat. ☎ **688 802 701**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo asteburuetan. ☎ **609 842 165**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **606 118 964**
- Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **628 738 472**
- Neska euskalduna eskaintzen da jantzi dendan lan egiteko. Edozein ordutegi. Esperientziaduna. ☎ **618 814 064**
- Gizonezkoa lan bila. Nagusiak zaintzeko prest, orduka edo interno. ☎ **631 361 762**
- Emakumea garbiketa lanetarako prest. Interna edo gaez nagusiak zaintzeko prest. ☎ **628 014 327**

- Astelehen eta ostiraletan orduka lan egiteko prest. Masajista, terapeuta edo estetika lanetan. ☎ **617 053 329**
- Mutila nagusiak zaintzeko prest edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ **699 609 190**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, prest. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edota garbiketa lanetarako prest. ☎ **602 068 313**
- Emakumea lan bila. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. Gauetan adinekoei konpainia egiteko prest. ☎ **628 738 472**
- Emakumea lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Astegunetan, goizez. ☎ **632 054 894**
- Neska, lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edota garbiketa lanetarako prest. ☎ **608 474 923**
- Neska lan bila. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Astegunetan, goizez. ☎ **699 232 823**

Eskaintza

- Inazio Bereziartua musika eskolak zuzendari administratiboa behar du. Curriculumak bidaltzeko: www.campo-ochandiano.com helbidean sartu. Erreferentzia: 2.493.
- Elgoibarko taberna baterako zerbitzaria behar da, ekainetik irailera bitartean lan egiteko. Interesatuak curriculumak bidali ondorengo helbidera: kamareroa@gmail.com
- Eibarko taberna batek euskaraz dakien zerbitzaria behar du. ☎ **697 245 186**

ETXEBIZITZAK.....

- Pisia hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. ☎ **686 052 084**
- Etxea alokairuan Elgoibarren. Altzariek. ☎ **636 233 175**

- Logela hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren edo Eibarren. ☎ **615 458 103**
- Logelak alokagai, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Etxea eta jantziak garbitzen ditut. ☎ **679 843 332**

GARAJEAK.....

- Garaje itxia alokairuan Ikastola ondoan. ☎ **669 916 148 / 943 531 648**

KINTOAK.....

- 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 4an, Sigma jatetxean. Meza izango dute 12:45ean; erretratua aterako dute 13:00etan, luntxa 14:00etan eta bazkaria 14:30ean. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte Laboraleko kontu honetan, apirilaren 30erako: 3035 0007 27 0071126942.
 - 1971n jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 18an Txaridunetan. Interesatuak 50 euro sartu behar dituzte Sabadell Guipuzcoanoko kontu korronte honetan, maiatzaren 8rako: 0081 4235 45 0001047409. 12:30ean batuko dira Maala tabernan.
 - Sigmakoen bazkaria, uztailaren 25ean. Interesatuak 45 euro sartu behar dituzte La Caixako kontu korronte zenbaki honetan, ekainaren 3rako: 2100 416871 2100263203.
 - 1973an jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 1ean, Belaustegi jatetxean. 50 euro sartu behar dira Kutxako kontu honetan, maiatzaren 15erako. 2101 0036 64 0013151006
- ## BESTELAKOAK.....
- Sukalderako egurrezko mahai berria salgai. 120x80cm neurrikoa. Luzatu egiten da. Prezio onean. ☎ **943 748 864**
 - Larruzko txaketa marroia galdu dut Pedro Migel Urruzuno kaleko 27 zenbakitik Osasun Zentrora bitartean. ☎ **636 542 819**
 - Basarte Elkarteak hamar bazkide berrirrentzako lekua du. Baldintza Ekonomiko interesgarriak. Informazio gehiago: ☎ **943 742 815**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



• Zorionak, **Nahia**, atzo 8 urte egin zenituelako. Aitaxo, amaxo eta Oihanen partez.



• Zorionak, **Maialen**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta anaia Markelen partez.




• Zorionak, **Aiora**, bihar larunbata, hilak 13, 2 urtetxo egingo dituzulako. Bi patxo familiakoen partez. Prest ditugu kandelak!



• Zorionak, **Lorea**, zure zazpigarren urtebetetzean. Primeran ospatuko dugu bihar! Muxu bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Julia!** Familiako guztien partez.



• Zorionak, **txapeldun!** 5 urte bete dituzulako. Edarki ospatu genduan! Patxo bat familiakuen, eta bereziki, Enekoren partez.



• Zorionak, **Naroal** Atzo 6 urte! Muxu asko familiakoen partez. Gol asko sartu zapatila berrieкин!



• Zorionak, **Tawfiq!** larunbatean 4 urte betetzen dituzulako. Familiakoen eta bereziki Adnelen partez.



• Zorionak, **Nora**, polit hori! Bost patxo handi etxekoan partez, eta bereziki, Iratiren partez.



• Zorionak, **Idoia**, hilaren 9an 7 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Yuriren partez.



• Zorionak, **Maialen**, gaur 7 urte betetzen dituzulako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **ama!** Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Aitor**, apirilaren 16an 9 urte egingo dituzulako. Gurasoen, Olatzen, Uxueren, eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Alaine!** Atzo gustura ospatu genuen zure urtebetetzea. Senideen, senarraren eta bereziki Urko eta Kaieten partez.



• Zorionak, **Zugatz**, zure bigarren urtebetetzean. Muxuak, gurasoen eta anaia Haitzart eta arreba Laieneren partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Igande honetan 2013ko Izarraitzeko konkistaren aurkezpena egingo dugu, 17:00etatik aurrera. Ekintza honen inguruko nondik norakoak azalduko ditugu izenematea ireki aurretik

ADIMEN EMOZIONALA GARATZEKO TAILERRA

(6-8 urte) BITARTEKO UMEENTZAT

- EMOZIOAK ezagutu eta erregulatzen ikasteko
- AUTOESTIMA indartzeko
- ENPATIA suspertzeko
- ASERTIBITATEA garatzeko
- HARREMAN BAIKORRAK bultzatzeko
- ONGIZATERAKO trebetasunak ikasteko

"Adimen emozional maila egoki bat izateak bizitza orekatu eta arrakastatsuago bat ziurtatzen duelako"

IRAUPENA: Maiatza eta ekaina (8 saio/astean saio bat)

Interesatuta baldin bazaude eskatu informazio gehiago helbide honetan: agurtze@yahoo.es edo deitu 699 173 635 zenbakira.

Apirilaren 19an, ostirala,
BIRZIKLA DEZAGUN!
Sortzen ditugun
hondakinak birziklatzeko
ontzien aurkezpena egingo da.



12 barixakua

Antzerkia

20:30 'Etxi'

Dar Dar produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

14 domeka

Kirola

09:00 Mendi irteera

Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak antolatuta Orixol mendira egingo dute irteera. Sigmako aparkalekuan batuko dira.

Kirola

10:00 Mendi irteera

Aitzorrotz (738 metro) mendira egingo dute irteera Ikastolako ikasle eta gurasoek. Ikastolan batuko dira.

Kirola

9:00 Enduro eta moto lasterketa

Urnobitza motoklubak antolatuta, Mintxetan.

Kirola

10:00 Mendaroko mendi lasterketa

Irteera: Herriko Enparantzatik.

Antzerkia

16:30 'Izar eta Zenaida: Indar magikoa'

Herriko Antzokian.

19 barixakua

Bideo forum

21:30 Pelikula eta kafea pastekin

Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Dinamizatzailea: Loredi Salegi.

ZINEA

'Los amantes pasajeros'

13, zapatua: 19:00/22:15

14, domeka: 19:00

15, astelehena: 21:30



Zuzendaria. Pedro Almodovar. Espainia, 2013. 90 min. Komedia. Aktoreak: Javier Camara, Carlos Areces, Raul Arevalo, Lola Dueñas, Cecilia Roth. Bidaiariak Mexikora doaz hegazkinez. Bata-batean arazo bat suertatuko da, eta heriotza gertu sumatuko dute bidaiariak. Larritasun egoera horretan bizitza pribatuko pasarteak kontatzen hasiko dira banan-banan.

'Arrasate 1936:

Emakumea, gerra eta errepresioa'

(Ongarri zinekluba)

18, eguena: 21:30



Dokumentala. Bigarren Errepublikaren etorkizun justuago baten ametsa, gerraren gau iluna eta ondorengo diktadura bizi, sentitu eta pairatu zuten emakumeen ahotan,

jasan behar izan zuten izuaren gordina ikusarazten du filmak. Euren bizipenak borroka mintzo dira eta orain garenaren zati bat euren indarrarengandik eta kemenarengandik jaio zela demostratzen dute. Historia idatziak jaso ez arren, emakumezkoak izan dira urte goibel hauetako protagonista nagusiak. Sufritu dute, baina jardun dute, sortu dute eta aurrera egiten jakin dute. Dokumental honek emakumeek jasandako ahanztura eta isileko istorioak aieratu nahi ditu.

OKINDEGIA

14 domeka:
EIZAGIRRE



BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

12 Etxeberria
13 Fernandez
Goizez: Barrenetxea
14 Fernandez
15 Yudego
16 Zabaleta
17 Barrenetxea
18 Ibañez
19 Garitaonandia

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Barrenetxea
Barrenetxea
Yudego
Barrenetxea
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia



ARDANTZABIDE

Zumaia

Etxebizitza berriak preziorik onenean

Zumaiaiko Ardantzabiden prezio mugatuko 32 etxebizitzetako bat nahi baduzu, zoaz Udaletxera eta izena eman.

Epea: martxoaren 11tik apirilaren 19ra.

Argibide gehiago hemen:

www.ardantzabide.es



Zumaiako Udala

943 31 68 68

www.sukia.com

Finantzatzen du:



sukia

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



3 logelako etxeak
garaje eta trastelekudunak
234.278€ + baz



Dirik sarritan merkatuzko kutsipena. Informazio hau aldi-beteko arazoi tekniko edo komertzialengatik. Iturburuen eburra. Argi gure bulegoan inguruko honetan ez dagoen gainerako informazio gutxi. ST/160 Enplegu Oribiturak, apirilaren 27koak, ezartzen dituzte.



Instituto de Máquina Herramienta



IMH

Ingeniaritza DUALA

UNIBERTSITATE ESKOLA



zure herrian, zure aukera

DBH
Ondoren?
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu
- Elektromekanikoa

BATXILERGOA
amaitzean?
GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 urte)
eta lanera edo ikasten jarraitu...

Goi-maila (ALTERNANTZIAN ERE)

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika industriala

... goi-mailako
Heziketa Zikloa
amaitu ondoren egiteko pentsatutako **INGENIARITZA** duzu **IMHn**:
INGENIARITZA DUALA
(alternantzian ikasi eta lan)

GRADUA:

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan
- Ingeniaritza

Informazio saioa: apirilaren 20an, 11:00etan

etortzeko deitu **943744132**ra edo apunta zaitetz www.imh.es orrian



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihok

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 740 789/650 586 144



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalaz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

